



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 8a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen dituena. Akats zuzenketa (6. or.).

—Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duena. Akats zuzenketa (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exijitu diezaion berehala geldiarazteko Aragoi eta Nafarroa arteko mugan *fracking*aren bidezko hidrokarburo ikerketa baimentzen duen Errege Dekretua. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oposizio-lehiaketaren sistema aplikatu dezan Nafarroako ospitale publikoetako unitateburuak eta zerbitzuburuak hautatzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirolaren mahai bat abian jar dezan Nafarroan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabide publikoak jar ditzan eta jarduketaregitegi bat ezar dezan Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloa garatzeko. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (10. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aldatzen duen foru lege proiektu bat aurkez dezan, GKE desberdinen berezitasunak kontuan hartzen dituena. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (11. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide egokia eman diezaien seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik laguntza ukatu zaien familia guztiei. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (11. or.).

- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da instalazio publikoetan egin daitezkeen haurdunaldiaren borondatezko eteteak, legean eta Kontuen Ganberaren gomendioetan esaten den moduan. Osasun Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari exijitzeko beren eskumenak erabil ditzatela dikeen mantentze- eta konpontze-lanei dagokienez, azpiegitura publikoak diren aldetik. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskadi eta Errioxako gobernuekin negozioa dezan Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera UNESCOri aurkeztutako hautagaitzan sartzeko Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko beste espazio batzuk. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa, arantza bifidoa duten pertsonen errolda sor dezan eta 2006tik dagoen kontusaila mantentzeko. Osasun Batzordeak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantentzeko abokatuen elkargoekiko lan-kidetzak hitzarmenak, Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzua indartzeko. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen baita beharrezkoak diren neurriak har ditzan Legebiltzar honen borondatea errespetatze aldera. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakitekoa zein den Gizarte Politiketako Departamentuaren jarrera ezgaitasunak dituzten pertsonen “Erronkari Ibarra” Zentroaren kudeaketari dagokienez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren ondorioz. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko. Izendapen-proposamena (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait akats aurkitu dira iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko Foru Legearen euskarazko testuan, zeina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2013ko apirilaren 19an argitaratu baitzen, 40. zenbakian. Horrenbestez, zuzenketa hauek egiten dira:

Zioen azalpenean (4. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“Foru lege honek zazpi kapitulu ditu, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.”

Aldiz, honela behar du:

“Foru lege honek zazpi artikulua ditu, zazpi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat.”

Lehenengo artikuluan, Hamalau atalean, Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorren 71.1.b) artikulua testua ezartzean (8. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste larri bat egin denean, portzentajea ehuneko 20tik ehuneko 60ra bitartean handituko da.

Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste soil bat egin denean, zehapenaren zenbateko handituko da...”

Aldiz, honela behar du:

“Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste larri bat egin denean, zehapenaren portzentajea ehuneko 20tik ehuneko 60ra bitartean handituko da.

Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste soil bat egin denean, zehapenaren zenbatekoa handituko da...”

Lehenengo artikuluan, Hamazazpi atalean, Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorren 118. artiku-

luaren testua ezartzean (8. orrialdeko eskuineko zutabea), hau jartzen du:

“5. Kautelazko neurriek, hartu eta sei hilabete-ko epean, ez dute ondorioz izanen, salbu eta kasu hauetan:

a) Enbargo bihurtzen direnean premiamendu prozeduran edo kautelazko neurri judizialean, kautelazko neurria hartzen den egunetik izanen baitute eragina.”

Aldiz, honela behar du:

“5. Kautelazko neurriek, hartu eta sei hilabete-ko epean, ez dute ondorioz izanen, salbu eta kasu hauetan:

a) Enbargo bihurtzen direnean premiamendu prozeduran edo kautelazko neurri judizial, kautelazko neurria hartzen den egunetik izanen baitute eragina.”

Bigarren artikuluan (11. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 4. idatz-zatia eranstean zaio Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsia) 48 artikuluari.”

Aldiz, honela behar du:

“2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 4. idatz-zatia eranstean zaio Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsia) 48. artikuluari.”

Laugarren artikuluan (11. orrialdeko eskuineko zutabea), hau jartzen du:

“2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko zergari buruzko

abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen arau hauek honako testua izanen dute”

Aldiz, honela behar du:

“2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen arau hauek honako testua izanen dute”

Laugarren artikuluaen Lau atalean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 80.3. artikulua ezartzean (12. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“b) Errenta salbuetsigabeei dagozkienak izaki atxikipenik behar ez duten diru-sarrerak, ez izatea, urtean, 25.000 euro baino gehiagokoak”

Aldiz, honela behar du:

“b) Errenta salbuetsigabeei dagozkienak izan eta atxikipenik behar ez duten diru-sarrerak ez izatea, urtean, 25.000 euro baino gehiagokoak”

Seigarren artikuluan (13. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“...Nafarroan ordezkari-tza handiena duten gutxienez lau sindikatuetako ordezkari-ek eta beste entitate sozioekonomikoko ordezkari-ek...”

Aldiz, honela behar du:

“...Nafarroan ordezkari-tza handiena duten gutxienez lau sindikatuetako ordezkari-ek eta beste entitate sozioekonomiko batzuetako ordezkari-ek...”

Lehen xedapen gehigarrian, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiko lehen lerrokada ezartzean (13. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“3. 2012ko abenduaren 28an ixten den lehen balantzean jasotzen diren elementu eguneratzeko moduko-ek gainean eguneratuko dira balioak...”

Aldiz, honela behar du:

“3. 2012ko abenduaren 28tik aurrera ixten den lehen balantzean jasotzen diren elementu eguneratzeko moduko-ek gainean eguneratuko dira balioak...”

Bigarren xedapen gehigarrian, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen 3. artikuluko Lau atalak eragina zein egunetatik aurrera izanen duen ezartzean (13. orrialdeko eskuineko zutabea), hau jartzen du:

“Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen 3. artikuluko Lau idatz-zatiak atalak 2012ko azaroaren 15etik aurrera gertatzen diren zergapeko egitateetan izanen du eragina”

“Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen 3. artikuluko Lau atalak 2012ko azaroaren 15etik aurrera gertatzen diren zergapeko egitateetan izanen du eragina”

Laugarren xedapen gehigarrian (14. orrialdeko ezkerreko zutabea), hau jartzen du:

“...halako moduz non ziurtatuta egonen den zerga-iruzurraren aurkako borroka eraginkorra izatea”

Aldiz, honela behar du:

“...halako moduz non ziurtatuta egonen den iruzur fiskalaren aurkako borroka eraginkorra izatea”

Zazpigarren xedapen gehigarrian (14. orrialdeko eskuineko zutabea), hau jartzen du:

“...deklaratzeko dituzten erosketen arteko aldea marjina baten azpitik daukatenei buruzkoa”

Aldiz, honela behar du:

“...deklaratzeko dituzten erosketen arteko aldea marjina jakin baten azpitik daukatenei buruzkoa”

Xedapen iragankor bakarrean (14. orrialdeko eskuineko zutabea), hau jartzen du:

«Pertsona fisiko-ek errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboko araubidea eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua, 2014 urteari dagozkion zergaldietarako.

“1. Pertsona fisiko-ek errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboko araubidea eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua ez zaie aplikatuko 2013ko zergaldian araubide horien menpe egoterik izan ez duten jarduera ekonomiko-ek (ekonomia-jardueren gaineko zergako jarduera-multzo-ek)».

Aldiz, honela behar du:

«Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboko araubidea eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua, 2014. urteari dagozkion zergaldietarako.

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboko araubidea eta balio

erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua ez zaizkie aplikatuko 2013ko zergaldian araubide horien menpe egoterik izan ez duten jarduera ekonomikoari (ekonomia-jardueren gaineko zergako jarduera-multzoei)».

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen dituen.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Legearen euskarazko testuan, zeina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2013ko apirilaren 19an argitaratu baitzen, 40. zenbakian. Horrenbestez, zuzenketa hau egiten da:

1. artikuluan, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 32. artikulua berria ezartzean (16. orrialdeko eskuineko zutabea), hau jartzen du:

“Merkataritza-establezimenduak lanegunetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeinak eguneari gehienez ere hamabost orduko lanaldia ezarriko

baitu, merkataritza bakoitzak libreaki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubiak ezertan kaltetu gabe.”

Aldiz, honela behar du:

“Merkataritza-establezimenduak lanegunetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeina gehienez ere hamabost ordukoa izanen baita, merkataritza bakoitzak libreaki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubiak ezertan kaltetu gabe.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duen Foru Legearen euskarazko testuan, zeina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2013ko apirilaren 19an argitaratu baitzen, 40. zenbakian. Horrenbestez, zuzenketa hau egiten da:

Artikulu bakarrean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duenean, 1.

idatz-zatia (18. orrialdeko eskuineko zutabea) honela dago:

“Nafarroako Parlamentuari dagokio Nafarroako Aurrekontu Orokorra onestea, foru lege baten bidez.”

Aldiz, honela behar du:

“Nafarroako Parlamentuari dagokio Nafarroako Kontu Orokorra onestea, foru lege baten bidez.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exijitu diezaion berehala geldiarazteko Aragoi eta Nafarroa arteko mugan *fracking*aren bidezko hidrokarbuo ikerketa baimentzen duen Errege Dekretua.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari exijitu diezaion berehala geldiarazteko Aragoi eta Nafarroa arteko mugan *fracking*aren bidezko hidrokarbuo ikerketa baimentzen duen Errege Dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean premiaz eztabaidatu eta bozkatzeko.

Komunikabideen bitartez jakin dugu azken Ministroen Kontseiluan baimena eman dela, errege dekretu bidez, *fracking* izeneko prozeduraren bitartez gasa ateratzeko. Jakina da prozedura

horrek alarma soziala piztu duela eta, gainera, Parlamentu honek mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Foru Komunitatea *fracking*ik gabeko lurralde deklaritzen baitzen, eta laster hori berretsiko duen lege bat eztabaidatu eta itxuraz onetsiko da. Bestalde, jakin dugu errege dekretu bidez baimena eman zaiola "Frontera Energy Corporation" enpresari "Aquiles" proiektua gauzatzeko, hidrokarbuoak *fracking*aren bidez ikertze aldera Aragoi eta Nafarroa arteko mugan. Ikerketa horrek 100.000 biztanleri eraginen die, bai eta Bardea, Fustiñana, Ribaforada, Buñuel eta Cortesko lurrei ere. Hori guztia dela eta, erabaki proposamen hau aurkezten dugu, premiaz eztabaidatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari exiji diezaion errege dekretu hori berehala geldiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez ditzan eman erauzketa-proiektua gauzatzeko baimenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aintzat har dezan Parlamentu honek hartutako erabakia eta *fracking*aren aurka ager dadin; halaber, Europako herrialde askok egin duten moduan, moratoria bat eska dezan, erauzketa-prozesuaren segurtasun falta dela-eta, eta "bere lurraldea" defenda dezan, are gehiago kontuan hartuta zona hori biosferaren erreserba eta nekazaritzarako eta ingurumenerako balio handiko eremua dela.

Iruñean, 2013ko apirilaren 29an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oposizio-lehiaketaren sistema aplika dezan Nafarroako ospitale publikoetako unitateburuak eta zerbitzuberuak hautatzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oposizio-lehiaketaren sistema aplika dezan Nafarroako ospitale publikoetako unitateburuak eta zerbitzuberuak hautatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oposizio-lehiaketaren sistema aplika dezan Nafarroako ospitale publikoetako unitateburuak eta zerbitzuberuak hautatzeko.

Tamalez, azken hilabeteotan ikusi dugu Nafarroako ospitale publikoetako osasun arloko ardurdun ugariaren kargu-uzteak eta dimisioak izan direla, "arrazoi pertsonalak" tarteko, batez ere unitate-eta zerbitzu-burutzei dagokienez.

Badakigu ospitaleak Ospitalegunean bateratzeko prozesua ez dela erraza; hala ere, zailtasunak zailtasun, ezagutzen ditugu profesionalen beraien zenbait eskari, nagusiki, eta berriro ere, epe luzerako ikuspegi faltari eta komunikazio eta gardentasun faltari buruzkoak, horiek funtsezko elementuak baitira edozein aldaketa egiterakoan.

Unitateburuak edo zerbitzuberuak nahierara hautatzeak dakar aldi berean aurrekoak kargutik kentzea, eta zalantza asko sorrarazten ditu zenbait alderdiren inguruan, hala nola hautatutako

pertsonen gaitasuna eta haien merezimenduak, baina baita ardurak ematerakoan ezinbestekotzat jotzen ditugun beste batzuei dagokienez ere; esaterako, eskaini ahal den antolamendu-proiektua zerbitzuen efizientzia eta eraginkortasuna areagotzeko, edota beharrezkoa den lidergo-gaitasuna. Alderdi horiek guztiak ez dira subjektiboki baloratu behar, prozesu objektibo baten bidez baizik, eta, hain zuzen, horixe da oposizio-lehiaketaren sistemaren ekarpena, eta, horrenbestez, askoz ere gardenagoa da.

Bestalde, ez dugu alde batera utzi nahi beste alderdi garrantzitsu bat, hobe dena saihestea zerbitzuen funtzionamendu egokirako; izan ere, oposizio-lehiaketaren bidez errazagoa da beharrezkoak ez diren tentsioak ekiditea agintaritzaren bidez baino. Izendapen askeak dakar batzuk kentzea beste batzuk jartzeko, eta horrek, esan dugun moduan, beharrezkoak ez diren tentsioak sortzen ditu egunero soinez soin lan egin behar duten lankideen artean.

Izendapen askearen sistemak, itxuraz arinagoa eman dezakeen arren, zalantzan jartzen ditu beste zenbait elementu, ezinbestean aipatu behar direnak: lehenbizikoz, zalantzan jartzen du batzuetan azalpenik gabe kargugabetzen diren pertsonen gaitasuna; bigarrenik, zalantzan jartzen du pertsona horiek kasuko unitate edo zerbitzueren burutza bete duten aldi eginiko kudeaketa –eta hori kezagarria da; izan ere, horren guztiaren atzean herritarra dago, kalitatezko zerbitzu bat espero duena–; eta, hirugarrenik, iradokitzen du konfiantzako pertsonen izendapenak gehiago hartzen duela kontuan zenbaitek lobby-interesei eman ahal dieten garrantzia interes orokorra baino.

Horregatik guztiagatik, zalantzak argitze aldera eta osasun arloko unitateburuak eta zerbitzuberuak izendatzeko sistema askoz ere gardenagoa egite aldera, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hemendik aurrera unitate eta zerbitzuetako burutzetarako izendapen guztiak oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez egin dit-

zan, hori baita prestakuntza zientifikoa, kudeaketa-rako gaitasuna eta lidergo-gaitasuna egiaztatzeko eredurik onena, eta, gainera, laguntzarako, irakas-kuntzarako eta ikerketarako jarraitutasun hobea ahalbidetzen duena.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirolaren mahai bat abian jar dezan Nafarroan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolaren mahai bat abian jar dezan Nafarroan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu kirolaren mahai bat abian jar dezan Nafarroan.

Zioen azalpena

Kirol federazioek eta klubek funtsezko eginkizuna bete dute gure erkidegoko kirol-jardueraren garapenari dagokionez. 2001ean, Kirolaren Foru Legeak ezarri zuen kirola Nafarroako herritar guztien eskubidea dela. Legeriaren babesean, Nafarroako Foru Komunitateko, toki entitateetako eta

kirol federazioen eta klubek kirol proiektua garatu da. Administrazioa da Nafarroan kirolaren sustatzaile nagusia; izan ere, federazioen eta klubek inguruan antolatzen den kirol-jarduera finantzatzen du diru-laguntzen, zuzeneko ordainketaren eta baita babesletza publikoen bidez ere.

Kirola bizimodu osasuntsuak sustatzen dituen eragilea da, eta lankidetzak, pertsonen arteko harremanak, konpromisoa eta erantzukizuna sustatzen ditu. Horretaz gain, ezgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko elementua izan da. Zalantzarik gabe, oinarrizko kirolak lehen mailako hezkuntza- eta prestakuntza-eginkizuna betetzen du haurtzaroen eta gaztaroen. Hala ere, kirolaren bilakaerak pentsarazten du orain arte baliagarriak izan diren zenbait eredu jada ez direla hain baliagarriak, eta komeni dela aurrera egitea egungo sistemaren alderdi positiboak berretsiko dituen –izan ere, alderdi horiek asko dira, Nafarroa lehen baita Espainian kirol-jarduerari dagokionez– eta negatibotzat jotzen diren alderdiak konponduko dituen eredu baterantz.

Egia da, hala ere, bizi dugun krisi testuinguru honetan finantzaketarako zailtasunak areagotu egiten direla, eta, hala, diru-laguntzak ezinbestekoak direla klubek eta federazioen jarduerak mantentzeko, ulerturik ezen kirolean inbertitzeak, zergen bidez ogasun publikoaren onurarako izateaz gain, ondorio positiboak dituela beste arlo batzuetan, hala nola hezkuntzan, integrazioan eta osasunean.

Azken batean, federazioek, klubek eta Administrazioak helburu berak konpartitzen dituzte, eta talde kohesionatu baten moduan jardun behar dute, Nafarroan kirolaren praktika egokiak sustatu eta sendotze aldera.

Azaldutako guztiagatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Kirolerako mahai bat eratu behar da, zeina osatuko baitute parlamentu-taldeetako ordezkariak, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko ordezkariak (teknikariak barne), Foru Ogasuneko ordezkariak eta klubetako eta kirol federazioetako ordezkariak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

a.- Azter dezan Kirol eta Gazteria Zuzendaritza Lehendakaritza edo Hezkuntza Departamentura eramatea.

b. Bi edo hiru urtez behin, foru dekretuaren edo foru aginduaren kontzeptua planteatzen dezan, bai eta

diru-laguntzen aurreikuspena ere, denboraldi bakoitzaren hasieran horiei buruzko parametroak ezagutu eta aurrekontuak nolabaiteko segurtasunez egite aldera.

c.- Diru-laguntzak urtarrilean edo otsailean ordain ditzan, eta denboraldia amaitu ondoren ordaintzea zuzen dezan, horrek plangintzak egiteko eragozpenak ekartzen baitizkie klubei eta federazioei.

d.- Administrazio kontuak eta zerga arloko egi-aztapenari dagozkionak sinplifikatzea, errealitatea eta federazioen eta/edo klubuen ahalmenak kontuan hartuta, horietako gehienak modu altruistan kudeatzen baitira.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an.

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabide publikoak jar ditzan eta jarduketa-egutegi bat ezar dezan Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloa garatzeko.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabide publikoak jar ditzan eta jarduketa-egutegi bat ezar dezan Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloa garatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Behar diren baliabide publikoak ezar ditzan, emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako protokoloa garatzeko Nafarroan.

2. Aipatu protokoloa abian jartzeko jarduketa-egutegi bat ezar dezan."

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aldatzen duen foru lege proiektu bat aurkez dezan, GKE desberdinen berezitasunak kontuan hartzen dituen.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aldatzen duen foru lege proiektu bat aurkez dezan, GKE desberdinen berezitasunak kontuan hartzen dituen.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan hiru hilabeteko epean, GKE-en berezitasunak kontuan hartuko dituen eta GKE-en egonkortasun ekonomikoa eta parte-hartzea ziurtatuko dituen, diru-laguntzen deialdiak zein egunetan argitaratu, ebatzi eta ordaindu behar diren ezarri.”

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide egokia eman diezaien seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko laguntza ukatu zaien familia guztiei.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide egokia eman diezaien seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko laguntza ukatu zaien familia guztiei.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide positibo bat

eman diezaien, deialdi berri bat egin baino lehen, laguntza ukatu zaien familia guztiei, ordainketa osorik egitea ahalbidetuko duen modu bat bilatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eszedentziagatiko laguntza ekonomikoaren jarraitutasuna ziurta dezan, langileen familia eta lana bateragarri egiteko, eta Nafarroako familia guztietako jaiotze-tasa igotzeko, neurri osagarri gisa.”

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko maiatzaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bi erakunde horiek premiatzen ditu, egokien iritzitako bideak erabiliz eska diezaieten beren iritzia hiriko kultur eta gizarte taldeei, gizarte zibilak parte har dezan konponbide asebetegarrien eta sozialki onartuen bilaketan.

3. Nafarroako Parlamentuak bi erakunde horiek premiatzen ditu batzorde misto hori heldu den hiruhilekoan zehar abian jar dezan, eta 2013a bukatu baino lehen Parlamentuko agerraldi batean informa dezan egindako lanari buruz".

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko maiatzaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babes aktiboa emanen duela Lizarrako hiria "Nafarroako Ondare-hiri" deklaratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako hiria "Nafarroako Ondare-hiri" deklaratu dezan, egoki diren bideak erabilita eta egoki den dokumentazioa aldezturik prestatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere behar den babes politiko eta tekniko guztia eman dezan, Lizarrako hiria Gizateriaren Ondare deklaratzeko hautagai-tzaren espediente ahal den osatuena eta operati-boena izan dadin, lortu nahi den helburuari begira".

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da instalazio publikoetan egin daitezen haurdunaldiaren borondatezko eteteak, legean eta Kontuen Ganberaren gomendioetan esaten den moduan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da instalazio publikoetan egin daitezen haurdunaldiaren borondatezko eteteak, legean eta Kontuen Ganberaren gomendioetan esaten den moduan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gain har ditzan eta sistema nahiz instalazio publikoetan egin daitezen abortuak, legeak ezarritakoarekin eta Kontuen Ganberak egindako gomendioekin bat.”

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari exijitzeko beren eskumenak erabil ditzatela dikeen mantentze- eta konpontze-lanei dagokienez, azpiegitura publikoak diren aldetik.

LANDA GARAPENEN, INGURUMENEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioen Batzordeak, 2013ko maiatzaren 3an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari exijitzeko beren eskumenak erabil ditzatela dikeen mantentze- eta konpontze-lanei dagokienez, azpiegitura publikoak diren aldetik.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari eta hari atxikitako Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exijitzeko berehala balia ditzaten dikeen mantentze-lanen eta konpontze-

ren arloan ditzuten eskumenak, azpiegitura publikoak diren neurrian. Orobat exijitzen die epe luze-agarako plangintza bat egin dezaten, kalte larri horiek zuzentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, ikusita Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ezetza eman diola kalte horien konpontze bere gain hartzeari, eta konpontze hori presakoa dela ikusita eta kontuan hartuta udalen egoera ekonomikoa zaila dela, nekazaritza-azpiegituretako kalteak ebalua ditzan eta beharrezkoa den konpontze finantzatzeko behar den kontusaila gaitu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kaltetutako nekazari-entzako laguntzak abiaraz ditzan, pairatu duten errenta-galera dela eta.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urte anitzeko hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera”.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskadi eta Errioxako gobernuekin negozio dezan Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera UNESCOri aurkeztutako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko beste espazio batzuk.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko maiatzaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskadi eta Errioxako gobernuekin negozio dezan Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera UNESCOri aurkeztutako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko beste espazio batzuk”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Euskadi eta Errioxako gobernuekin negozio dezan Errioxako mahastien paisaia kultur ondare deklaratzeko aldera UNESCOri aurkeztutako hasierako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deiturako beste espazio batzuk, mahasti tradizionalen paisaiaren kontserbazio-balio esanguratsuen adierazgarri direnak eta mahastizaintzari lotutako kulturaren erreferente direnak; zehazki, Viana, Aras, Mendabia, Andosilla, Azagra, San Adrián, Bargota eta Sartagudakoak eta Las Cañas aintzirakoak”.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa, arantza bifidoa duten pertsonen errolda sor dezan eta 2006tik dagoen kontusaila mantentzen dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa, arantza bifidoa duten pertsonen errolda sor dezan eta 2006tik dagoen kontusaila mantentzen dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu du. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa bete dezan. Hona mozioa:

- Gaixotasun hori dutenei arreta integrala emateko protokolo bat ezartzea. Protokolo horrek koordinazioa eta banakako jarraipena sustatuko ditu,

gaixoaren oinarizko osasun laguntzako sendagilearen bidez, eta aholkulari adituaren figura ezarriko du, erreferentziako teknikari gisa.

- Arantza bifidoari aurrea hartzeko eta horri buruz informatzeko kanpainak egitea.

- Egin beharreko zuzemenak egitea, Nafarroan arantza bifidoaren gaixotasuna dutenei gaixo kronikoak direla aitortzeko.

2. Arantza bifidoarekin jaiotako pertsonen errolda eta jaio ez direnena sortzea, gaixotasunaren eragin erreala ezagutzeko.

3. Laguntza Psikologikoko Zerbitzua (autozundaketa barne) eta Fisioterapiako Zerbitzua emateko kontusaila, zeina 2006tik baitago eta 30.500 euro baitu, mantentzea”

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantentzen dituzan abokatuen elkargoekiko lankidetzaren hitzarmenak, Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzua indartzeko.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantentzen dituzan abokatuen elkargoekiko lankidetzaren hitzarmenak, Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzua indartzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu du. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azken urteotako aurrekontu-dinamika mantentzen dezan, abokatuen elkargoekiko lankidetzaren hitzarmenei dagokienez, Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzua indartzeko xedez”.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen baitio beharrezkoak diren neurriak har ditzan Legebiltzar honen borondatea errespetatze aldera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak egiaztatu du lan-gabeziaren datu jakin berriak direla oraingo Nafarroako Gobernuak herritar nafarrek sufritzen dituzten problema larriei aurre egitean izandako porrot eta erakutsitako ezgaitasunaren agerpen tristeena eta sozialki eutsi ezinena.

2. Horregatik, Nafarroako Parlamentuak, Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Gobernuko lehendakariak Parlamentu honek dimititzeko egiten dion eskakizuna betetzeari behin eta berriz ematen dionez ezezkoa, Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar diren ekimenak har ditzala, Parlamentu honen borondatea errespetatzeko”

Iruñean, 2013ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin, eta adierazten du laneko arriskuen prebentzioa, hala istripuena nola gaixotasun profesionalena, beharrezko inbertsio bat dela eta langileen eskubide bat, ezin dena urratu krisia aitzakia hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna agertzen die lan istripuen eta gaixotasun profesionalen biktima izandako langileei, eta adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak har ditzala hartu beharreko kudeaketa- eta ikuskapen-neurriak lan istripu nahiz gaixotasun profesional oro zorrozki deklaratu dadin halakotzat.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak benetako politika aktibo bat egin dezala lan arriskuen prebentzioaren arloan, eta behar diren baliabideak jar ditzala horretarako.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten duela Espainiako Gobernuak prestatzen ari den errege-dekretua, laneko bajak kudeatzeari buruzkoa, zeinetan eskumen gehiago ematen baitzaizkie mutuei; izan ere, horrek, de facto, ekarriko duena da langileek osasunerako duten eskubidea murriztea, eta pauso bat gehiago ematea osasun sistema pribatizatze bidean”

Iruñean, 2013ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zein den Gizarte Politiketako Departamentuaren jarrera ezgaitasunak dituzten pertsonen “Erronkari Ibarra” Zentroaren kudeaketari dagokionez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko epaiaren ondorioz.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko maiatzaren 2an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari zegokionez. Galdera zen jakitekoa zein zen Gizarte Politiketako Departamentuaren jarrera ezgaitasunak dituzten pertsonen “Erronkari Ibarra” Zentroaren kudeaketari dagokio-

nez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko epaiaren ondorioz. Galdera hori 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzekoa.

Izendapen-proposamena

Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 7.1 oinarrian xedatutakoaren arabera (19. NPAO, 2013ko otsailaren 19koa), Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da aurkeztu den izangai bakarrak lortutako puntuazio

osoa, eta Legebiltzarreko Mahaiari igortzen zaio, lehiaketaren behin betiko emaitzaren ondorioz, Antonio Ansorena Urriza jaunaren aldeko izendapen-proposamena.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 3an

Epaimahaikide-Idazkaria Silvia Doménech Alegre

Izen-abizenak	Merezimenduak	Oroitidazkia	Txosten psikoteknikoa	Puntuazio osoa
Ansorena Urriza, Antonio	37,64	18,6	8,75	64,99

¶

